

2010eko
maiatza

Ttiki-ttaka

20^{Zk.}

errioxako euskaldunon aldizkaria





04

03 Editoriala
04 Erreportaia
11 Herriz herri

11 Bastida

12 Biasteri

14 Lantziego

15 Lapuebla de Labarca

17 Oion

20 Kontu kontari

20 Arabar Errioxa Interneten

22 IKAk 20 urte bete du

24 Iosu Muro.

26 Ttiki Ttaka logo berria

27 Lamiturri elkarte

28 Bertso talde berria


29 Ane gogoan

30 Denborapasak

37 Euskarapatada

38 Non gogoan, han zangoa

11



20



ttiki-ttaka kultur elkarte



ONGIETORRIA
ZER DA TTIKI TTAKA
ALDIZKARI DIGITALA
LOGO LEHARKEA DUTU
ARABAR ERRIOXAKO
JANAK
Mintzalagun
Pagarpenak
agortuta

ONGIETORRIA

Arabar Errioxako eta Vitorian euskaltzain
entzu gureak. Gurel buruan 15 urte inguru
euskaltzain eta ikastola, eta ikasle euskal
euskaltzain inguru zabalera pasatzen ari
guztiz.

KONTAKTUAZIOA: ttikitaka@gmail.com
Partekatu: www.ttitika.net www.ttitika.net

EGILEAK

Ttiki-ttaka

Arabar Errioxako
euskaldunon
elkarte

HELBIDEA

**Oiongo IKA
euskaltegia**

Diputazio Kalea,32
01320 Oion
errioxa@ikanet.net

ASSA Ikastola

MAKETAZIOA

M.J.A.

marrausi@yahoo.es

Euskara, noren ardura da?

Arabako Errioxako kaleetatik euskara desagertu zenetik mende batzuk pasa dira dagoeneko. Harrez gero duela 30 urte inguru Ikastolak sortu ziren umeei euskaraz ikasi eta hezi zitezten, orain dela 20taka urte Euskaltegiak helduek ere gure hizkuntza ikasteko aukera izan zezaten.

Pasa diren hamarkadetako teorien arabera, umeei euskara ikasita gure hizkuntzaren berreskurapena ziurtatuta zegoen, baina praktikak erakusten digu garai baten ikastoletako eta euskaltegi-tako ikasle izandako asko guraso izan direla eta teoria praktikan ez dela gauzatu.

Ezin da ukatu gure eskualdeko euskararen egoerak hobera egin duela, euskara ezagutzen duen kopuruak zeharo gora egin duelako eta kaleko erabilera ere urrats txikien bitartez aurrera egiten ari delako, dena dela erritmo honetan inoiz ez da euskalduneko Arabako zonalde hau. Bestalde, aldi berean, azken 10 urteetan euskalduntze prozesua geldialdi kutsua hartuta dago gure eskualdean, bai euskara eta euskal kultura eta hauen inguruan gizarteak duen jarrera. Horren aurrean Ttiki-Ttaka Elkarteak azken hamarkadan behar-beharrezkoa zen Euskararen Normalizazio Planaren eskaera egiten aritu da eta azkenean saiakera ezberdinak egin eta gero Arabako Foru Aldundiaren babes eta bultzadarekin Hizkuntza Normalizazio Teknikaria kontratatatu da eta bere bitartez Eskualderako Normalizazio Plana onartu du Kuadrilak, aurreko guztiak jausi kualitatiboa dakarrelarik.

Egun tresnak badauzkagu, baina berriro izenburuko galderara bueltatuz:

Noren ardura da euskararen normalizazioaren itsasontzia bide egokirik portura eramatearena?

Bat-bateko erantzunak etor litezke burura: administrazioarena (Foru Aldundia, Kuadrila, udala...), alderdi politikoena, ikastolena, euskaltegiarena... edota Arabako Errioxako biztanleria osatzen dugun guztiona. Baina euskararekiko ardura zehatza dutenek benetako ekintzen bitartez erakutsi beharko lukete borondatea, aitzakiarik gabe, administrazioari dagokionez benetako apustua egiteko garaia da eta eskualdeko udalek benetako apustua egin. Bestalde euskalgintza osatzen dugu guztiok (ikastola, euskaltegi, Ttiki-Ttaka...) hausnartu egin beharko genuke egun zer egiten dugun gure hizkuntzaren normalizazioa gauzatzeko, ea nahikoa den eta ondorioz etorkizunean zer egin beharko genukeen, horretarako urratsak, jomugak eta ekintzak zehaztuz, baldin eta euskararen normalizazioa gure helburua bada.

Bukatzen joatekoa euskararen ardura denona eta inorena ere ez izaten buka dezake, eta hori da azken hamarkadan sumatzen den joera gure eskualdeko zenbait sektoreengandik. Beraz, garaia da aitzakiak albo batera utzi, topikoak gainditu eta lanean serio hasteko, konpromiso zehatzak hartu eta gauzatzeko, baldin eta benetan nahi badugu gure hizkuntza berreskuratu. ■

Arabako Errioxako euskararen normalizaziorako plana



Nor da Leire Sueskun?

Eskualdeko Euskararen Normalizaziorako Teknikaria naiz. Izatez, Gasteiztarra naiz, baino eskualdearekin lotura estua daukat Lapuebla de Labarcan, Oionen eta Navaridasen familia baitut. Zientzia Politiko eta Administrazio Zientzietan Lizentziatua naiz. Ikasketa gehigarri batzuk egin ostean, lan munduan hasi eta giza baliabideetan lan egitetik euskara planak egitera pasa naiz urte hauetan. Hoby berezirik ez dut, denbora librean aprobetxatzen dut neureekin egoteko eta momentu txikiez disfrutatzen.

Gehiegi luzatu gabe eta denok ulertzeko moduan, zer da eta zertarako balio du Arabako Errioxako Normalizazio Planak?

Eskualdeko politika linguistikoa zehazten lagunduko duen dokumentua da Plana. Marko orokor bat eskaintzen du eskualdeko eragile guztiok norabide berean lan egin dezagun euskararen normalizazioan. Hamar esparru hartzen ditu bere baitan: familia transmisioa, euskalduntzea-prestakuntza, irakaskuntza, administrazioa, lan-mundua, aisia, kirola, kultura, komunikabideak eta teknologia berriak. Esparru bakoitzean helburu eta ekintza desberdinak jasotzen dira helburu orokorra lortu asmoz, hau da, euskararen normalizazioa.

Aurretik aipatu duzun eginbehar guztiak kontuan hartuta, zein da Hizkuntza Normalizaziorako Teknikariaren lana?

Batetik, lehen aipaturiko marko orokor hori definitu eta abian jartzea. Bigarrenik, eragile guztien arteko koordinaziorako eta komunikaziorako gune bat sortzea, azpiegitura sendo bat errotzea eskualdean, alegia. Hirugarrenik, laguntza teknikoa eskaini eskatzen duen edozein eragileri euskara sustatu eta normalizaziorako planak definitu edota abian jartzeko. Azkenik, eta administrazioari dagokionez, 1998ko martxoaren 31ko 10/1998 Foru Araua betearaztea (Foru Arauak arautzen du euskararen erabilera normalizatzea, Arabako Foru Administrazioan eta Lurralde Historikoan).

Gaur egun nola ikusten duzu euskararen egoera gure eskualdean?

Hainbat kontu aipatu nahiko nituzke hemen:

Hasteko, euskararen ezagutza nabari igo dela agerian da. Oraingo erronka nagusia erabilera izan daitekeela uste dut. Ezagutza eta gaitasuna ondo errotu eta erabilera sustatzeko programak abian jarri (mintzalagun edota kuadrilategi programen bidez, esaterako).

Euskararen eragile asko dago eskualdean. Elkarlana bideratu beharra dagoela ikusten dut, guztion arteko elkarlana euskararen normalizatorako marko hori definitu eta abian jarri ahal izateko. Duela egun gutxi erabili zuten metafora ekarri nahi dut hona: normalizazioan pieza asko dago bananduta eta puzzle bat osatzeko, normalizazioarena, alegia, pieza guztiak batu behar dira, oster, ez dugu puzzle hori lortuko. Moldatu dudan arren, ideia garbi dago, elkarrekin lan egin behar dugu.

Zer pentsatzen duzu emango diola Plan honek gure eskualdeari?

Osotasun bat, koordinazio eta elkarlanerako marko bat. Euskara ez da hala moduz tratatu daitekeen gai bat, gure hizkuntza da, denbora inbertitu behar dugu, dirua eta bestelako baliabideak. Euskarak, beste edozein gaik bezala, planifikazio bat behar duela adierazi nahi da Plan honekin, kontzientzia hori zabaldu, normalizazioa ez dela ipuin kontalari bat edota pailazo saio bat jartzea urteko momentu puntual batean. Ipuin kontalari bat edo pailazo saioa egiten bada zentzu batekin egin behar dela, alegia.

Daramazun denbora laburra izanda, baina hainbat jende eta herrietan mugitu eta gero etorkizunari begira, zein izango da gainditu beharko dugun oztoporik zailena?

Eta bestalde oztopoak gainditzeko, zer da gure eskualdeak duen indargunea edo gaitasuna?

Oztoporik zailenak: portaerak (benetan sentitu eta pentsatzen dena), jarrerak (egin edo esaten dena) eta dirua.

Dena dela, eskualdean, badago lan egin nahi duen jende asko, euskaltzale asko, alegia. Nahi hori da azpimarratuko nukeen indargunea. Proiektu bat abian jartzeko batzuetan baliabide ekonomikoak dira mugatzen gaituztenak, ados. Baina, proiektu hori benetan abian jarri nahi bada, ikusi ahal izan dut nola modu batez ala bestez pertsona desberdinek dutena jarri izan duten proiektua egikaritzeko aurrera begira egoera ekonomiko hobea helduko denaren zain.

Hizkuntza Teknikaria pertsona bakarra da eta argi dago horrelako Plan bat garatzeko eskualdeko sektore ezberdinetako (administrazioak, saltzaileak, bodegak, aisialdiko taldeak...) partaidetza ezinbestekoa dela. Zer eskatuko zenioke Ttiki-Ttaka Aldizkaria irakurtzen dutenei eta orokorrean gure eskualdeko biztanleei erronka berri honen aurrean?

Esan bezala, partaidetza ezinbestekoa da. Guztion artean antolatu beharra ikusten dut eta lan honetarako lana eta denbora dedikatzeko prest dagoen jendea bildu nahiko nuke, lehen aipaturiko eragileak ordezkatzeko dituen pertsonen laguntza behar dut. Euskararen Aholku Batzordea abian jarri nahiko nuke. Batzorde anitza izatea gustatuko litzaidake eta honen lana euskara zerbitzuko lan-ildoak zehazteko laguntza ematea izango litzateke. Hori da, hain zuzen ere, eskatzen dudana: zuen laguntza (ikastetxe, euskaltegi, elkarte eta beste administrazioei) elkarlan hau abian jartzeko eta plana egikaritu ahal izateko. ■

Duela pare bat hilabete ikusita aldizkariaren gai nagusia **Arabako Errioxako Euskararen Normalizazio Plana** zela zilegi iruditu zitzaigun Plan hori Kuadrilan onartu zuten alderdiei eta oro har, gure eskualdeko alderdi politiko guztiei zabaldu zaie: Aralar, EA, EAJ, Ezker Abertzalea, Ezker Batua, PP eta PSE.

Ttiki-Ttakaren esku zegoen guztia egin ondoren, ondoko lerroetan jasoko irakurriko dituzue EAJ, PP, EB eta Ezker Abertzalearen erantzunak. Gainontzeko baten batek ez erantzuteko aitzakiaren bat jarri du eta gainontzekoek ez dute ezta hori ere adierazi.

1- Nola baloratzen duzue euskararen egoera gure eskualdean?



Baxua %10.



Euskararen egoera hezkuntzari dagokionez positiboa da Erkidegoko sare publikoan eskaintza elebiduna baita.



Gazteleraren ondoan, gure eskualdeko euskararen egoera desabantaila nabarmenean dago; zoritxarrez nagusientzat hizkuntza ezezaguna da eta ezagutzen ari dira zorionez beraien iloba edo semeren baten ama hizkuntza izaten hasi delako dagoeneko. Aurrekoa dela eta euskararen ikaskuntza denontzat bultzatu behar da, gurea delako eta ondorioz gure kultura eta bizitzaren zatia.

Ezker Abertzaleak

Gure eskualdeko euskararen egoera azaltzeko orduan bi ikuspunturi begiratu diogu, euskarak oso presentzia txikia duen gurea bezalako tokietan. Bata, hezkuntzaren mundua da, hau da, gazteen mundua, ikas-prozesuan aritzen direnena, nagusiki hauei eragiten baitie (ikastola, eskola, institutu,...);

gazteez aparte, gaueskolen inguruan aritzen diren helduen konpromisoa ere ez dugu ahaztu behar.

Bestea, erakunde publiko (udaletxe, koadrila,...) zein pribatuko (banketxe, denda, taberna, kale giro,...) munduari ere begiratu behar zaiola uste dugu.

Lehenbiziko puntuari erreparatuta garbi dago euskarari dagokionez gorakako joera nabarmena dagoela ikastolak sortu eta finkatu zirenetik. Hala ere, A ereduan ari direnen %20ko kopuru zamatsu hori, tinko jarraitzen du, euskara ukatuz eta gaztelaniaren nagusitasuna bermatuz.

Gaueskoletan berriz, joera ez da hain positiboa, ikasle kopuruak larri larri mantendu edo behera egin du pixkana pixkana, nahiz eta gaur egunean klaseez gain beste ikas eredu batzuk ere aukeratzen diren. blogak, internet,.....

Gure ustetan, garrantzitsuena da, bai ikastolak nola gaueskolak, herri ekimenetik sortuak direla eta bere jardunean jendea erakarri, mugiarazi eta parte hartzaile bihurtuz, euskararen mundua sortu eta eratzen duela. Halaber, dituzten behar eta ezintasunen arabera, Administrazioaren aurrean zirikatzaile lana ere egiten dute, eta neurri handi batean hauen eskaera eta errebindikazioei erantzuteko mugitzen du ipurdia Administrazioak.

Bigarren puntuari erreparatuz gero, ordea, basamortua agertzen zaigu. 2009ko iraila arte itxaron behar izan dugu Kuadrillako lehenbiziko euskara teknikaria ezagutzeko eta ez dakigu berau zenbat denboraz izango dugun. Langile honen lanetako bat Administrazioak euskararekiko duen jarreraren diagnostikoa egitea bada, hobe luke "baleriana" pare bat hartzea eta oinetako sokak etxean uztea, eskualdeko edozein udaletxe aurreko zumarretik zintzilik bukatu nahi ez badu bere desesperazioan. Ez dute, ezta beraiek jarritako gutxienekoak betetzen ere.

Oasi bakarrak, txiki txikiak, esku bateko hatzekin zenbartzeko modukoak, eremu pribatutik datoz, jendea kontratatzeke orduan, euskarari nolabaiteko garrantzia ematen diotenen aldetik. Eta Koadrilako irrati eta aldizkarian ere, "por fin", euskarak muturra agertzen du, noizbehinka.

2- Ezagutzen duzue zer den eta zertarako den EBPN edo Normalizazio Plana?



Ez da Plana zabaldu, hori dela eta ez dakigu zertarako balio duen.



Ezagutzen dugu Normalizazio Plana duela gutxi Kuadrilako Bileran onartua izan delako.



Bai ezagutzen dugu eta logikoa denez euskara eskualdeko biztanlegoari hurbiltzeko balio du Planak, alde handia baitago euskara ezagutzen duten Arabako Errioxako ume eta gazte, eta ezagutzen ez duten guraso eta aiton-amomen artean. Beharrezkoa da euskara kalera ateratzea eta denona egitea.

Ezker Abertzaleak

Guk dakigunaren arabera, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak edo Normalkuntza Planak, euskararen normalkuntza Administrazioaren eremu guztietan eman beharreko pausoak finkatzean datza, helburuak eta epeak jarriz eta hauen jarraipena eginez eskualdeko eragile guztien artean bidea adostuz.

3- Nola baloratzen dituzue aldaketa hauek gure eskualdean? Zergatik?



Ez dakigu aldaketek zertan izan dezaketen eragina, euskara indartzeko badira ongi etorriak, bestela negatiboa izango da.



Pentsatzen dugu beste mota batzuetako planak beharrezkoagoak direla bai euskararen ezagutza eta erabilera suspertzeko.



Aldaketa garrantzitsuak dira, gure eskualdean euskara eta gaztelaren artean dagoen tartea txikitzeko, horrela geroz eta jende gehiagok (instituzioen esfortzu eta laguntzarekin) euskara ikas eta erabili dezan.

Ezker Abertzaleak

Oso era positiboan baloratzen ditugu aldaketa hauek, nahiz eta gure ustetan askozaz ere lehenagotik martxan egon behar zuket; uste baitugu, hartutako bide hau izan daitekeela, bere hutsune eta itzal guztiekin, gerora Errioxako euskaldunei zerbitzu publikoa euskaraz jasoko dutela bermatu ahal diena.

Baina hau guztia errezeloz ere begiratzen dugula esan beharra dugu, honetan guztian borondate politikoak zer ikusi handia

duelako eta hau da hain zuzen ere inondik ere ikusten ez duguna. Geroak esango du.

4- Zeintzuk dira etorkizunean zure alderdiak ikusten dituen, alde batetik beharrak eta bestetik asmoak euskararekiko gure eskualdean?



Euskara gehiago bultzatu. Etorkizuna gure gazteen eskuetan dago. Dena dela, ez bada lanik egiten eskualdearentzat negatiboa izango da.

Faltan botatzen dugu Gobernuak euskara gehiagotan diruz ez laguntzea, horrela gehiago lantzeko. Jakina baita udal txikiok ez dugula baliabide nahikorik euskara bultzatzeko.



Alderdi Popularrak euskara euskaldun guztion ondare eta bilgune tresnatzat dauka. Alderdi Popularrak Erkidegoko biztanleen norbanako askatasuna errespetatzen du bai euskararen ezagutzan zein erabileran. Gure alderditik hizkuntzari dagokionez elkarbizitza demokratikoa eta normalizatua lortu nahi dugu, horren inguruko bazterketak ekidituz.



Beharrak ugari dira, adibidez, nahi duen edozeinentzat euskara ikasteko ikastaroak, baita ere gazteek klasetik kanpo euskaraz hitz egiteko duten beldurra kentzen lagundu eta horrela kaleko hizkuntza kolokiala bihurtu, denda, taberna eta jatetxeetako langileek euskara ikastera animatu horrela bezeroei euskaraz zerbitzatzeko, bideseinaleak, kaleko paisaia linguistikoa eta informazioa euskaraz. Horrek

guztiak lagunduko luke hizkuntzaren ikasketan eta normalizazioan. Euskaraz eta euskararen aldeko kultur ekintzak eta gizarte ekintzak eskualde mailan bultzatu. Aurretik aipatutako guztiarengatik Ezker Batua Berdeak alderdikook bermatuko ditugu egingo diren ekintzak, gure ustez beharrezkoak, Arabako Errioxako hizkuntzaren normalizazioaren ibilbide luze honetan.

Bakarrik esan instituzioak direla lehenengoak eredu ematen hasi behar direnak eta lagundu euskara Arabako Errioxan hitz egin eta ikasia izan dadin.

Ezker Abertzaleak

Esan beharrik ez dago gure alderdiak deia luzatua diela aspalditik kide guztiei, bai ikastoletako organo zein herriz herri dauden euskararen aldeko elkarte eta mugimenduetan lagundu eta parte hartzeko, eta haien lan eta bititza esparrutan ematen diren bidegabekeria nahiz zapalketa guztiak salatuz behatokira eta mugimenduetara zuzentzeko.

Honetaz gain, guztiz beharrezkoa ikusten dugu gainerako alderdiak interpelatu eta euskararen arazoa ikastola zein gaveskoletan delegatu beharrean, euskararen aldeko eragile aktibo bihurtu, dauden erakunde publikoetatik (Koadrila eta Udaletatik) euskara ikastera bultzatuz, herriko toki publikoetan euskararen erabilpenerako baldintzak egokitzen lagundu.

Gure egoera ilegalarekin ezer gutxi egin dezakegu erakunde hauetan, lehen Koadrilan ordezkariarik ere ez genuen, baina hori ez da aitzakia eta ahalegindu beharko dugu nola edo hala gurea ere azalarazten. ■

Euskara Arabar Errioxan

Arabako Errioxan badugu euskara teknikaria, badugu euskara plana...baina denek ikasten al dute euskaraz hitz egiten? Nahiko euskara ikasten al da ikastetxeetan? Zenbait herritan, oraindik ere, A ereduari jende gehiegi ez al da ari? Horrelako kezka batzuk bultzatuta Oiongo kaleetara atera gara euskaltegiko zenbait ikasle.

1. Seme-alabarik bazenu nora bidaliko zenuke edo zenituzke, ikastolara edo eskolara? Zergatik?
2. Txikia bazina, umea, zer aukeratuko zenuke, eskola edo ikastola?
3. Zer egingo zenuke Arabar Errioxan euskararen etorkizuna hobetzeko?



Angel

- 1- Lau seme-alaba ditut. Lehenengo hirurek A ereduari ikasi zuten eta azkenak B ereduari ikasi zuten. Lan egiteko beharrezkoa delako.
- 2- Nik Hego Amerikan ikasi nuen, baina orain hemen ikasiko banu B ereduari aukeratuko nuke, euskara duen ereduari hautatuko nuke.
- 3- Hobetzen ari da, gero eta aukera gehiago daude euskara erabiltzeko.



Alberto

- 1- Bi seme-alaba ditut. Ama euskalduna izanda ikastolan ikasten dute.
- 2- Nik eskolan ikasi nuen garai hartan ez baitzegoen beste aukerarik, baina, orain, seguraski, ikastolan ikasiko nuke euskara ikasteko.
- 3- Zaila da baina poliki-poliki denon artean egin dezakegu, ari gara.



Andrea

- 1- Ikastolara. Euskara ikasteko.
- 2- Ikastola.
- 3- Euskarazko ekitaldi gehiago egitea; gurasoek umei txikitatik hizkuntza barneraraztea, etxean hitz eginez adibidez.

1. Seme-alabarik bazenu nora bidaliko zenuke edo zenituzke, ikastolara edo eskolara? Zergatik?
2. Txikia bazina, umea, zer aukeratuko zenuke, eskola edo ikastola?
3. Zer egingo zenuke Arabar Errioxan euskararen etorkizuna hobetzeko?

**Begoña**

1- Ez dut seme-alabarik baina izango banu ikastolara eramango nuke zalantzarik gabe. Asko gustatzen zaidalako eta orain hobeto ezagutzen dudanez, askoz gehiago gustatzen zait.

2- Ziur nago ikastolan ikasiko nukeela.

3- Euskaraz murgildu behar dugu, guk egiten ez badugu, nork egingo du?

**Ibon**

1. Ikastolara. Hizkuntza ikasteko erraztasun handiagoa dagoelako eta ziurrenez hobeto ikasiko luketelako.

2. Txikia izango banintz ez nuke aukeratzeko ahalmenik izango, kar kar kar... Ikastola.

3. Ez dakit, ez daukat hain argi.

**Julen**

1. Ikastolara. Txikia nintzenean hara joan nintzelako eta orain ikastolako langilea naizelako.

2. Ikastola. Niri ez zaidalako hain txarto joan.

3. Ba... Koadrilatik, udaletxetik eta beste instituzioetatik hasi eta gero gerokoa etor dadila.

Miguel

1. Badauzkat seme-alabak. Eskolara bidali ditut. Kanpotik etorri gara eta ikastolara ezin nituen eraman ez zekitelako euskaraz hitz egiten eta handiegiak omen ziren hasteko.

2. Nik eskola publikoan ikasi nuen, baina orain ikastolan ikastea aukeratuko nuke.

3. Gauza horietan ez naiz sartuko. Azken urte hauetan kanpoan bizi izan naiz eta ez dakit nola dauden hemen gauzak, desfasatuta nago. ■

Bastida ikastolak 30 urte



Pasa den apirilaren 24an eta 25ean bere XXX. urteurrena ospatu zuen Bastida Ikastolak.

1979an proiektu xume hau martxan jarri zen Bastidako eta inguruetak

euskara beharrei erantzuteko asmoz. Hasieran Bastidako 13 haur baino ez zeuden, gaur egun ia 200 haur biltzen ditu Bastida Ikastolak, eta hauek Arabako, Errioxako eta Burgoseko zenbait herritatik datoz.

Urteekin hazten joan den proiektua izan da, dudarik gabe, horretarako dator, besteak beste, duela lau urte egin zen eraikin berri eta propioa.

Eta hau guztia ospatzeko asmoz, pasaden apirilean asteburu osoko jaialdia antolatu zen ikastolan. Hilabeteetako lanaren eta irakasleen eta gurasoen inplikazioaren ondorioz antolatutako festa izan zen.



Eguraldia ona lagun, hainbat eta hainbat pertsona elkartu ziren bai larunbatean, baita igandean ere; eta musikaz, ikuskizunez, herri bazkariak eta abarrez gozatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren guztiak.

Larunbatean, Euskal Wenster Jaialdia izan zuten. Hasteko, zaldien eta behien ikuskizuna egon zen eta lagun dezente hurbildu ziren berau ikustera; afaltzeko parrillada eder bat prestatu zen eta ondoren rock kontzertuak izan zituzten Enkore, Laia eta Child Rain taldeekin.

Igandean, berriz, agurraren eta omenaldiaren ondoren, umeentzako jolasak, tailerrak eta puzgarriak, Enarak dantza taldearen emanaldia, herri bazkaria eta ikastolako guraso batek dinamizatutako aerobic saioa izan zuten. Aipatutako ekintza hauen guztien artean nabarmentzekoa da egondako bazkari jendetsua, izan ere, igandean 140 lagun bildu ziren.

Jai polita eta alaia antolatu zen eta 30 urteak ospatzeko eta etorkizunari begira indarra hartzeko balio izan zuen. Euskara eta festa giroa elkartuz, haurrek, zein nagusiek asteburuaz gozatzeko eta proiektu honi bere atxikimendua adierazteko parada izan zuten.

Beraz, Zorionak Bastida Ikastola eta urte askotarako! ■

Euskara Biasteriko kaleetan



"Berandutxuau elduatik etxok asko ardurara, mai onera jo ezker", dio esaera zaharrak. Eta horixe etorri zitzaigun burura geuri ere urte luzetan gaztelera hutsez egon

diren kaleak euskaratzea erabaki zutenean. 2006ko alean hala salatu genuen Ttiki-ttakatik: ... Euskal Herrian ez dute euskara bezainbeste errespetatzen "ordezkutzen" gaituzten instituzioetan. Ez dugu bukatu nahi ordea, guztien errege-erregina den herria aipatu gabe, Biasteri. Araban dago, Euskal Herrian baina hemen txartelak hizkuntza bakarrean idazten

dira: EN CASTELLANO. (Ttiki-ttaka, 2006ko ekaina. 17 zk., 41. or.).

Zuetako askorentzat ez da kontu berria izango, izan ere, orain hiru urte, hauteskondeen ondoren udaletxean eman zen aldaketari esker, kaleak elebidun jartzea erabaki baitzuten. Ez dugu Ttiki-ttakan horren berri ematerik izan, eta 2006ko alean salatu genuen bezala, orain 2010eko alean, ekimen garrantzitsu horren berri ematea egoki iruditu zaigu. Horrela, Biasterik euskararekin zeukan zor zaharra kitatu du, eta berandu samar iritsi bada ere, euskara Biasteriko kaleetan dabil betiko gelditzeko. Bejondeizuela! ■

Saneamendu-sarea berritzen

"Rachuela" auzotik Berberana kaleraino ari dira

saneamendu-sarea berritzen.

Hori da, hain zuzen, obra erraldoi horren lehen fasea.

Sare berriak isurbideak, iturriko ura, telefonoa, ADSLa eta abar biltzen ditu.

Biasteri ezagutzen duena ongi daki lur azpian dauden sotoetan izan diren arazoak ur-jario ugariak

direla eta. Gainera, sarea erabat zaharkitua egoteak eragin handia du horretan.

Erabilitako teknikak aitzindariak dira Europan. Biasterirako bakarrik diseinatu dute Alemanian, eta halako herrietan egin den lehenbiziko aldia da. Lehen fase honetan aterako diren ondorioak oso baliagarriak izango dira herri osoari sare berria eman ahal izateko.

Pasa den apirilean Biasteriko nagusiek birmoldatutako gune berria estreinatu zuten. Urtebete luzea itxaron behar izan dute, baina merezi izan duelakoan daude: *"Negurako eginda egongo zela uste genuen, baina...Luzea egin zait negua, bai horixe! lagunekin ezin bildu, kartetan aritzerik ez, badakizu... Tira, polit geratu da, bai. Orain gainera taberna gure gunetik berezita dago eta hori oso ondo dago guretzat, zaharrok ez*



dugu zaratarik behar eta. Birmoldatzea oso ideia ona izan dela uste dut..” diosku Pili andreak. Txartel berria ere gogokoa du: “Nik ez dakit euskaraz, baina dotore gelditu da, bai. Baina zaila demonio da ahozkatzeko, ezta?” Eta horrela agur egin digu Pili koadrillarekin tutean aritzeko pronto.



Bien bitartean Aranzazu eta Juan Carlos, bertako arduradunak, kafesne beroa prestatzen ari dira Pili eta lagunentzat.

Ez da Biasterin erberritu den eraikin bakarra, ez. Bi urte eman dituzte hainbat zerbitzu inguratuko duen "Garzeta(s) etxea" txukuntzen. *Garzeta* edo *Garzetas* izena, XVI. mendean bertan bizi zen eskribau batengandik

datorkio, hala sinatzen baitzuen Biasteriko artxiboan ageri diren hainbat agirik erakusten dutenez.

Aurrealde dotorea eta ederra du etxetzarrak, zegoen bezalaxe ederki kontserbatua. Barrualdea, berriz, zerbitzuetarako egokitu dute ikutu modernoak eta erosoak bere antzintasunarekin uztartuz. Turismo bulegoa, liburutegia, KZ gunea eta erakusketa gela dira besteak beste bilduko dituenak. San Juan festetarako bukatuta izatea espero dute. ■



30.000 zuhaitz “Bieurko” izeneko otalurretan

Udalak erabaki sendoa hartuta "Bieurko" izeneko eremuaren magalean zeuden otalur guztiak berreskuratzea erabaki zuen. Bi helburu nagusi ziren: bata, hainbat lagunak jokaera kaskarrari aurre egitea (espekulazioa eta salmenta bidegabeak eragozteko, batik bat) eta bestea, otalur horiek zuhaitzez janztea ingurugiroari mesede egitearren. Horrela, 30.000 zuhaitz landatu dituzte aipaturiko eremuan. Hiru zuhaitz mota dira nagusi: haritzak, arteak eta erkametzak. Era berean, "San Julian" eta "San Gines" errekek garbitzen ari dira, errekatik errekarara doan tarte luzea, alegia. Ingurumenaren zinegotziaren esanetan, badira 30 urte iguru oso beharrezkotzat jotzen duen lan hori egin ez dela.

Norberto Miguelek "Agenda 21" ekimenarekin lotzen ditu egindakoak: *"Biasterikook "Agenda 21" ekimenaren alde jo genuen eta Arabako Errioxan aitzindariak izan garela esan dezakegu. Gure eskualdeak garapen iraunkorra ezinbestekoa du, eta Biasteriko Udalak erabateko konpromisoa hartu du. ■*

Euskal Kultur Astea

Non eta Lantziegon!



Urteetan eta urtero Arabar Errioxan eta Vianan ospatzen den hau, aurten, Lantziegon ospatu dugu. Ez da lehenengo aldia, orain dela urte asko

bertan ere ospatu zen.

Prestakuntza asko eta gero, euskal kultur astea bi jardunaldietan jorratu dugu. Alde batetik, maiatzaren 7an, ostirala, Lantziegon, Lapuebla, Bastida, Oion, Viana eta Lantziego ikastoletako ikasle eta irakasleak bildu ginen. Egunean zehar, ekintza desberdinak burutuz, haur eta irakasle ezberdinek disfrutatu genuen euskal giroan.

Bestalde, maiatzaren 9an, igandea, egunaz gozatu nahi zuen ororentzako jai irekia antolatu genuen. Euritsu abiatu zen eguna, baina ez gintuen kikildu. Lehenengo orduetan jende gutxi izan ginen arren, ospakizunak aurre egin hala eta eguraldia hobetuz joan zen heinean partaideak azalduz joan ziren.

Azkenean jende ugari bildu ginen eta aski ongi pasa genuen, bapo bazkaldu eta prestatu-eko ekintza desberdinetan parte hartu genuen... Jendearen partaidetza zoragarria

izan zen, bai laguntzerako orduan, bai eta gozatzeko garaian.

Beraz, egunaren garapena ikusirik, bertan parte hartu genuen/zenuten guztiak zoriontzea baino ez zaigu geratzen. Izan ere, beste urte batez, Arabar Errioxako, Vianako eta beste zenbait lekuetako euskaltzaleok gure hizkuntzari bultzada bat emateko indarra izan genuelako, bildu ginelako.

Orain datorren urteari itxaron beharko diogu, aurten Lantziegon burutu duguna beste nonbaiten ospatuko dugu hurrengoan, eta hantxe, eguraldiak nahi badu, elkar ikusiko dugu berriro ere.

Bitartean, segi dezagun aurrera euskararen alde egiten,

Segi aurrera! Haur, gazte zein heldu,

Segi aurrera! Seme-alaba zein guraso,

Segi aurrera! ikasle zein irakasle.

Badugu altxor bat zaindu beharrekoa:

gure hizkuntza, GURE EUSKARA!

Mila esker Lantziego, Kripan, Biñaspren eta Bilarrekin osatzen duten ikastola txiki, baina handi honetatik eta **Ttiki-Ttaka elkartetik.** ■



Assa ikastolako VI. Kultur Astea motza baino intensoa!

Atzo ematen du lehenengo aldiz kultur astea ospatzen hasi ginela Assa ikastolan eta dagoeneko VI. edizioa egina dugu. Astea deitu diogu baina, hiru egun besterik ez dira izan. Zein azkar pasatu diren gainera!

Gure ikastolan aste hau instituzionalizatu da eta egingo ez bagenu zerbait faltako litzaioke kurtsoari. Aste hau antolatzerakoan, beti bezala, handiengan eta txikiengan pentsatu dugu eta ekintzak aukeratzeko, buruan izan dugu denon partaidetza ezinbestekoa dela.



Horregatik, gure kulturaren "arrasto" txikiak sartu ditugu: bertsoak, dantzak, gastronomia, baina baita ere, beste lurralderen bat hobeto ezagutzeko parada izan dugu eta nola ez bakoitzaren gaitasunak adierazteko aukera ere. Konpartitzeko edo birziklatzeko baloreak ere landu izan ditugu "nirea dela" hain gastatuak diren hitzak alde batera utzita.

Posiblea da, bai, hiru egunetan guzti hau aurrera eramatea bestela ikusi gure aste txiki-maratoi honen egitaraua:

Astelehenean ikastolako kide guztiok bertaratu ginen ikastolako goiko patioan albokaren soinuaz asteari hasiera emateko, ikastolako ikasle ohia den Lorena Besaren eskutik. Txikienek galdetzen zuten:- andereño zein tresna da hori? Eta hor entzuten zen andereñoaren azalpena. Tresna horren izena alboka da eta ba al dakizue zerez egina dagoen? Ez -erantzuten zuten ikasle txikiek. Txahalen bi adarrez egina dago- zioen andereñoak. Eta festetan dantzarako erabiltzen zen, gaur egun gutxiago entzuten da baina ez dugu galdu behar ...- jaraitzen zuen andereñoak.

Ondoren, denak bertsolari bihurtu ginen eta koplak txiki batzuk bota genituen, batzuk lotsa gabe eta beste batzuk guztiz lotsatuta jendearen aurrean. Poliki poliki astearen egitaraua zuen hormirudia osatzen joan ginen eta bukaeran polit- polita gelditu zen.

Bukatutakoan, taldeka banatu ginen eta txikitxoak dantza pauso batzuk ikasten zuten bitartean, handienak antzerkira joan ziren Zirika Zirkus taldearen "Pantxika Lamur" antzezlanara ikustera.

Arratsaldean, itsasoan aritzen direnen lanetaz zerbait gehiago ikasi zuten HH eta Lhko ikasleek Kulki taldeak ekarri zituen jolasen bitartez eta gurasoentzat Carles ipuin kontalariak liburuz betetako bi maleta ekarri zituen gurasoei erakusteko. Hark esan zuen irakurtzeko zaletasuna ez dela ikastolaren lana bakarrik, etxean ere gauza pilo bat egin daitezkeela irakurzaletasuna pizteko. Ideia asko eman zituen!

Asteartean, DBHkoek telebistako saioa emulatu zuten eta PASAHITZA saioa egin zuten. Ondoren Peruko diaporama bat ikusi zuten eta bertako paisaiaz eta jendeaz harritzeko aukera izan zuten.

Txikienek, "Top manta" merkatua inprobisatu zuten. Urtez urte, gero eta merkantzia gehiago ekartzen dute aldatzeko eta oso pozik joan ziren etxera jostailu edo liburu berriekin.

Arratsaldean, sukaldarien

tankeraz agertu ziren patioan, buruan sukaldarien txanoa eta amantala zuri zuriaz, talde bakoitzak bere "pintxo kreaioa"z. Pintxoen izenak ere halakoxeak: "pintxo rantxeroa", "agualetak", "super tartaleta", "itsasontzia", "pintxo lehorra", "Txokopiru". Donostiako alde zaharreko taberna bateko mostradorea ematen zuen gure patioak. Nolako zaporeen eta koloreen nahasketa!. Irakasleek hasteko agindua eman eta hamar minutuetan dena desagertu zen, arrastorik ez.

Baina ez pentsa hemen bukatu zenik jaketo kontuak, arratsaldeko zazpi eta erdietan, bodega batean bildu ziren hainbat guraso "munduko gaztei buruzko" datu eta zaporeak dastatzeko. Benetan kuriosoak eta desberdinak usainetan eta zaporeetan.

Asteazkenean, ikasle gazteen txanda izan zen sukalde kontuetan eta tortila txapelketa antolatu zuten. Batzuek sukaldari itxura "apuntatzen" dute.

Bitartean, Hhko ikasleek ipuin kontalari berezi bati begira eta begira egon ziren; "Mertxi" ipuin kontalari ezaguna, baina denok aho zabalik.

Azken aurreko ekintza aho zabalik utzi gintuen bati baino gehiagori, artista batzuk deskubritzeko aukera izan genuelako: "Eta zuk zer dakizu egiten" lelopean ikasle askoren trebetasunak agertu ziren eta ez nolanahikoak gainera: piano jole bat, bibolin jole beste bat, dantzari eta mago ugari, txontxongiloak eta ipotxak ere agertu ziren eszenatokian. Batzuk eta besteekin primeran pasatu genuen, hau da hau imaginazioa eta trebezia!

Asteari agur esateko ikastolako kide guztiok patiora atera ginen eta denok elkarrekin hiru euskal dantza egin genituen. Bakoitzak ahalik eta hobekien egiten saiatu zen eta honekin batera hurrengo urteko kultur astearen zain gelditu ginen. ■



Bidezorroa eskuan, txapela buruan

San Bizente Ikastolako DBH4ko ikasleok aste ibiltari bat izan dugu. Alde batetik urte osoan zehar prestatutako ikasbidaia egin dugu. Eraitza onekin gainera. London izan da aukeratutako lekua; aintzina eta gaurko eguna bateratzen dituen hiria. Zoragarria. Eguraldi euritsua izanda, jakin izan dugu "aterki" metaforiko bat bilatzen. Non gogoia, han zangoa.

Gaztelaniazko esapide batek dio "ikasteko, irakurri eta bidaiatu behar dela" dioenak... eta bidai honetan esapidea egiaztatu da. Aurrez aurre izan ditugu antzinaren premia handiko aztarnak, "Roseta" harria esaterako. Halaber, Bekoz beko izan ditugu telebistan eta liburuetan bakarrik ikusiak genituen bazterrak, eta hori mirestu dugu ikasleok.

Nire ustez, Londoneko lehen irudia, guk izan genuen gabeko ibilaldia (Eye of London, Houses of Parliament, Londreseko zubia...) izatea, hobezina izan zen. Xeheki ez izan arren, Londreseko bihotza ikusi genuen, eta horrekin jadanik Londonen geundela hauteman genuen behingoz. Beharbada horregatik, "Londres" hitza entzuten dudak bakoitzean paseo horretako irudiak etortzen zaizkit burura. Lehen irudia oso garrantzitsua da, eta hemen berriro ere gauzatu da teoria hau.

Oxford hirian ere egon ginen. Hiriaren araztasun paregabea da; edozein eraikinean ikusten zen nolako kutsu historikoa gordetzen duen Oxfordek bere harri zaharkituen barnean. Zirraragarria da.

Hori gain-gainetik esanda izan da gure aste ibiltariaren lehen zatia. Bigarrena ikasbidaiaren ostean, Kaliforniako ikasle

batzuk gure etxeetara etorri zirela. Gure ikastolako irakasle batek Kaliforniara joan zen irakastera eta bere egungo ikastetxeko (Sonoma Academy) ikasbidaia prestatu zuen. Egitamua hastapenean Espainiara (kasu honetan Andaluziara) bakarrik joatea zen, baino Maitane (halaxe du izena irakaslea) Euskal Herrira hurbiltzea nahi izan zuen. Ikasleek, Irakasleek eta Ikastolak eskertu diogu Maitaneri horrela antolatzea, esperientzia berri bat oparitu digulako.

Ez genuen denbora gehiegi izan Euskadi erakusteko baino ahalegindu gara denbora gutxian Euskal Herriko zertzelada garrantzitsuenak aurkezten. Ez bakarrik Euskadiko bazterrak eta inguruak, baizik eta gure herrialdearen mugetatik kanpo ospea ematen digun elementua ere jana.

Hasteko, lehen egunean Biasterira joan ginen. Erakutsi nahi genien nolako den gaur egungo bizitza Arabar-Errioxan. Haien lurraldean upeltegiak eta mahastiak ohikoak dira, baino haien bizitza ez da hemengo bezalakoa. Ikusi zuten hemengoak erdi aroko herriak zirela, lehen begirada batean denbora igaro ez den herriak iruditzen zutenak. Txunditu ziren, baino edozeren gainetik eliza izan zen Laguardiako gauzarik politena beraientzat. Ez zuten ohikoa hartzen guk ditugun elizak. Batek esan zidan ea horrelako elizetan jendea otoitz egin ahal zuen, ala bakarrik erakusteko erabiltzen zen. Ysios upeltegia ere ikusi genuen eta bere diseinu erakargarriak atentzioa deitu zien.

Hurrengo egunean ikastolan egon ginen. (Aurreko eguna Arabar Errioxako zonaldea harrien bitartez ezagutzen joan baginen ere, egun horretan euskal jokoan

bitartez erakutsi genien.) Eskupilota, zesta-punta... beraien larruan nabaritu zuten. Xibekin ere moldatu ziren, guztia esan beharra badago, batzuk hemengoak baino hobeto trebatu ziren.

Azken egunean, nire aburuz, egun gomutagarriena izan zen. Bilbora joan ginen eta hiri honetako iragan industrialala azaldu ondoren Guggenheim museoa iragan honen isla zela azaltzean, kanpo-egitura ulertzen joan ziren. Nik ikusitakoaren arabera gustura ibili ziren museoan. Baina politena ondoren zetorrena zen: Gaztelugatxeko irteera. Gaztelugatxera nihoanean sustrai irlandarrak zituen batekin nihoan eta berak azaldu zidan nola toki horrek Irlanda gogorazten ziola, eta nolnahi ere arrazoia zeukan. Badakit asko ez

direla nirekin bat etorriko, baino nire ustez Gaztelugatxe ikusi genuen eguraldiarekin ikustea (euria ari zuen) egokiena izan zen. Itsasoaren urru bortitza eta olatuen indarra irlatxo horretatik ikustea zoragarria izan baitzen.

Zoritzarrez joan dira, baino harremanetan jarraitzen dugu teknologi berriak direla medio... nola ez, ingelesez. Hizkuntzak aste honetan garrantzi handia hartu du, eta bi ekintza hauek (ikasbidaia eta kaliforniarrak) hizkuntzan ondorioa izan du: Erabat askatu ginen gehienok. Esan dezakegu aste honetan zehar unibertsalizatu garela, baina hori bai, beti jakinik nongoak garen. Horra hor, titulua: Bidezorroa eskuan, txapela buruan. ■



San Bizente ikastolak jantoki berria

Poliki baina seguru. Horrela doaz Oiongo San Bizente Ikastolako obrak. Harriz harri (beno, hobeto esanda, hormigoiez hormigoi eta burdinez burdin) guraso, ikasle eta irakasleen ametsa egi bihurtzen ari da. Badira urte batzuk ideia honi bueltak ematen hasiak zirela: "Posible ote da Ikastolak bere jantoki propioa izatea?" eta nola ez, guztien indarrak eta gogoak bilduta ideia hau gauzatzen hasi ziren. Ez da bide xamurra izan. Denok dakigu obra batek zer suposatzen duen. Baina oztopo guztiak gaindituta aurrera begira jardun zuten eta obrak lehenengo fasean egon arren, hormetako kolore eta leihoetako errezel edo gortinekin ametsetan hasiak dira jadanik.

Oiongo San Bizente Ikastolak 31 urte bete ditu. Urte hauetan asko aldatu da Ikastola honen fisionomia. Hasieran, gaur egun "Eraikin Gorria" izenarekin ezagutzen dugun eraikina bakarrik zegoen. Bertan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleak egoten ziren. 1997. urtean ospatutako Araba Euskaraz-en ateratako diruarekin, "Eraikin Urdina" egin zen. Edifizio berri

honetan D.B.H jarri zuten, Ikastolak orduraino eskaintzen zuen hezkuntza eskaintza handituz. Baina lehen esan bezala, amets bat betetzen denean hurrengo ideiarekin amesten hasten gara. Eta berehala konturatu ziren hartzaindegi zerbitzua eskaintzen hasi beharko zirela. Hori dela eta 2003an gauzatutako Araba Euskaraz edizio berriarekin, Eraikin Gorrian hartzaindegia jarri zuten martxan. Beraz, ikus dezakegun bezala, 31 urte hauetan Ikastola handituz joan da. Eta nola ez, ezin zuten handitze prozesua eten.

2008an hasi ziren ideia berri honekin. Baina orduan ezin izan zuten gauzatu eraikin berria eta aurten arte itxaron behar izan dute. Ez da obra erraldoi horietakoa baina badauka bere mamia. Jantokia, erabilera anitzeko aretoa, hartzaindegia, gelak... beste ikastola bat emango du gure ikastolak. Orain, ikastolako ikasleak Ramiro de Maeztu ikastetxe publikora joaten dira bazkaltzera. Gero eta jatun gehiago daude, eta bertako jantokia txiki gelditzen ari da. Gainera neguan eta eguraldi txarrarekin, gure ikasleak katiuskak eta berokiak jantzi beharra izaten dute jantokiraino joateko. Hala ere, umeak umeak izanik, ezinezkoa egiten da busti gabe bueltatzea. Obra gauzatzen denean, ikastolako jantokira kalera irten gabe joango dira, ikastola barrutik egingo baitiote jantokirako sarrera. Bestetik, bilerak eta

egiteko, udaletxeari eskatu behar izaten diote areto bat edo beste. Hemendik aurrera, eraikin berrian bilerak egiteko aukera izango dute. Eta hauek ez dira aurrerapausu bakarrak. Aspalditik Ikastolako hartzaindegia txiki geratu da. Txikia eta iluna. Horregatik hartzaindegia handitu eta berritu egingo dute, espazioan eta argitasunean irabaziz. Beste bi gela ere egingo dira, aurreikusten baita urte gutxi barru, beharko dituztela. Eta nola ez, aurrekoetan bezala, Araba Euskaraz baten laguntza behar izan dute oraingoan ere. Iaz ospatu zen Oionen Araba Euskaraz-en azkeneko edizioa. Ilusioz beterik, eta begirada proiektu berri honetan jarrita, gogor ekin zioten guztiek inoiz ahaztu ezin izango dugun jaialdi bat antolatzeke. Buru belarri, aurreko ikasturte osoan zehar, euskararen aldeko jaia prestatzen ibili ziren, eta orduan egindako lanaren haziak fruitua ematen hasi da aurten. Bazirudien obrak hasteko unea ez zela inoiz iritsiko. Baina iritsi bakarrik ez. Obrak aurreratuak daude eta ia inaugurazioan pentsatzen jarriak dira. Egun hori ere laster iritsiko da seguru.

Gaur egun, eta 31 urte hauetan egin duten lanari esker, San Bizente Ikastola herrialde honetako hezkuntza erreferente bihurtu da. Beste hainbat urtetan euskararen alde lanean jarraitzea da guztion ametsa. ■



Arabar Errioxa Interneten

Gure eskualdean hasiak dira bertako lehen web orriak plazaratu edo publikatzen, horietako batzuk euskaraz ere badaude, hala ere badira batzuk euskara hizkuntza aukeretan izan eta ondoren edukiak hutsik dituztenak.

Euskara erabiltzen dutenen artean helburu aunitzetako web orriak topa ditzakegu gure Arabar Errioxako web ingurune birtualean, turismoa erakartzeko xedea dutenak, salmentak egitea helburu dutenak edo-eta euskararekin zerikusia duten lekuak topa ditzakegu.

Hauetatik guztietatik parte-hartze zuzena bultzatzen duen bakarra gurea da,

ttikittaka.org, hori baita iruzkinak eta proposamenak egitea posible duen leku bakarra eta jendearen ekarpenak eskatu eta eskertzen dituenena. Hauek izaten baitira web leku bat aberasten duten ekintzak.

Ttikittaka.org gazteentzako leku interesgarria bilakatzea nahiko genuke, kazetari edonor izan daitekeelarik, gure herriko eta inguruko jaiak, festak edo bestelakoak iragartzeko lekua izan daitekeela uste dugu.

Bide batez euskara ikasteko ariketa sorta ederrak daude mintzapraktika edo ikasbil.net web lekuan, **ttikittaka.org**-en ere jarduera batzuk dituzue prest praktikatzeko. ■

Upalategiak

LAUNA <http://www.bodegaslauna.com>

ABRA <http://www.riojalavesa.com/>

Baigorri <http://www.bodegasbaigorri.com/>

Ostatu <http://www.ostatu.com/>

Lamioga <http://www.bodegalamioga.com>

1. Bisitak euskaraz eskaintzen diruzten:

Luis Cañas

<http://www.luiscanas.com/>

Viña Laguardia

http://www.vinalaguardia.es/2008/_mac_index.php

Heredad Ugarte

<http://www.heredadugarte.com/index.php>

Bodegas Casado Morales

<http://www.casadomorales.es/>

Lamioga

<http://www.bodegalamioga.com>

2. Euskaraz jarri arren mementoz ez dabilta:

<http://www.rutadelvinoderiojaalavesa.com/>

<http://www.turismoriojaalavesa.com/2009/es/index2.php>

<http://www.elciego.es/Euskara.asp>

<http://www.elvillar.es/>

Euskara eta hezkuntza

- <http://ttikittaka.org>
- <http://ikanet.net> (errioxa)
- <http://assaikastola.net/>
- <http://www.sanbizenteikastola.org/>
- <Http://www.erentzun.net>

Udaletxe eta Koadrilako informazioa


- <http://www.riojalavesa.com/>
- <http://www.ayuntamientodeoyon.com>
- <http://www.arabalanciego.com/>
- <http://www.labastida-bastida.org/>
- <http://www.lapuebladelabarca.es/>
- <http://www.laguardia-alava.com/os/index.asp>

Autoikaskuntzarako interneteko baliabideak:

- Ikasbil <http://www.ikasbil.net/>
- Azpidazki <http://www.ehu.es/azpidazki/>
- BOGA <http://www.boga.habe.org/>
- Bai & By <http://www.baiby.com/>
- Mondragon-Lingua <http://www.mondragonlingua.com/>
- Kaixo <http://www.kaixo.com/euskaltegia/>
- Ikasten .net <http://www.ikasten.net/>

Aldundiaren koadrilarako orria

- <http://www.euskaraba.com/euskara/kuadrillak/guardia-arabako-errioxa>



ttiki-ttaka kultur elkarte

ONGIETORRIA

Arabar Errioxako eta Vianako euskaltzainon elkarte 1997an sortu ginen. Gaur hartan 15 urte inguru zaramatzate euskaltzai eta ikasleak, eta ikasle euskaldunak ez egoteak 100 euskaltzai inguru itateri zara gurei zuzenduko omenak.

KONTAKTURAKO: ikasbil@ikasbil.net

Partekatu: [Lantzego Ikastola](#) [Assa Ikastola](#) [Lantzego Ikastola](#) [Assa Ikastola](#) [Lantzego Ikastola](#) [Assa Ikastola](#)

Eskerrik asko guztioi!

KAren 20. urteurrenak aurreko abenduan hartu gintuen bete-betean, ia-ia oharkabean iritsi zena. Muga hori urruti samar gelditzen zitzaigun, baina hortxe dira 20 urte **IKA** sortu genuenetik. Halabaina, Arabako Errioxan

Euskaltegiak urte gehiago bete dituela esan beharra dago. Gogoeta egin ostean, 28 urte paseak bete ditugula konturatu ginen; gainera, gu baino lehenago jardun zuenik ere izan zen. Beraz, Arabako Errioxan euskalduntze lanak 30 urte bete dituela esan daiteke.

Orotariko gorabeherak, pozak eta ezbeharrak bildu dira urte luze hauetan, eta lagun langile eta zintzoei esker euskarak tinko dirau geure eskualdean. Lagun andana etortzen zaigu gogora data seinalatu honetan, hogeitaka urte betetzea egindako lanaren ondorioa baita; izan zirenei eta zaretenoi esker betetzen jarraituko ditugunak.

Ospakizunak behar bezalako ekitaldia merezi zuen, eta berehala jarri ginen lanean. Ez genuen zalaparta handiz ospatu nahi; ikasle, ikasle ohi, euskaltzale eta inguruko lagunak bilduko zituen ekitaldi xumea baino ez. Eta hala prestatu genuen guztia abenduaren 17rako. Oiongo "Bazterra" aretoan genuen hitzordua Koldo Ameztok ipuin-kontalaria eta Pantxix Bidart kantariarekin. Hala ere, elurrak egin zigun bisita urtero lez, negua ezin egokia baita horretarako. Elurrak baino, ondoren izan zen izotzak behartu gintuen ekitaldia atzeratzera.



Gauzak horrela, abenduaren 28an bildu ginen berrogeita hamar lagun inguru Oiongo "Hegoalde" aretoan. Sarrera-ekitaldiaren ostean, Koldo Ameztok eta Pantxix Bidart kantari paregabeak "In vino fabula" obra eskaini ziguten ordubate luzean.

Otarra bete disko eta liburu zozketatu ondoren, luntx goxoa dastatu genuen bertaratutako lagunok. Eta hantxe aritu ginen kontu-kontari euskara lagun.

Eskerrik asko 20 urte hauetan euskara bultzatzen ibili zaretenoi; eskerrik asko euskara ikasi duzuenoi; eskerrik asko saiatu zaretenoi; eskerrik asko zonalde honetara etorri zareten ipuin kontalari, musikari, antzerkilari, hizlari, idazle, bidaiari, mendizale, zinema zuzendari eta abarri; eskerrik asko pasatako irakasle guztiei; eskerrik asko irakasleok kobratzeko lain ere izan ez dugunean lagundu diguzuen guztiei; eskerrik asko irakasleon prestakuntzan eta ikas materialekin lagundu diguzuenoi; eskerrik asko lokal egoki baten bila ibili garen urte luzeetan traktorea ekarri eta trasladoan lagundu diguzuenoi; eskerrik asko txosnatan txandak egin, bokatak egin eta saldu, loteria eta bestelako zozketak saldu dituzuen guztiei; eskerrik asko lokalak ireki, prestatu eta abar, askotan lan orduz kanpo, egin behar izan duten langileei; eskerrik asko gure ekitaldien eta bestelakoen berri eman duzuenoi... eskerrik asko Arabako Errioxa eta inguruak! Azken 20 urteetan euskarari asko eman diozu. ■



Ikak 20 urte bete du

Dena den, izenak izen, izanak eman behar zion jarraipena egitasmoari. Eta horretan sartu ginen buru-belarri Araba eta Nafarroako hainbat euskaltegi. Araban: Gasteiz eta Pinto euskaltegiak, Errioxako

herrietakoak Oionera eta Guardiara (Biasterira) bildurik, Lantaron, Kanpezu, Gobiaran... Nafarroan: Iruñerrian, Leitzaldean, Bortzirietan eta Malerrekan.

IKAren helburua Euskal Herri osoa euskalduntzea eta alfabetatzea izanik, eskatzen ziguten toki guztietara joango ginelako konpromisoa hartu genuen, baldin eta beste euskaltegiren bat ez bazegoen. Horrela, zenbait urtetan Saran (Iparraldean) eman izan ditugu eskolak, Maeztun beste batzuetan... Ildo beretik Barnetegia osatu behar zela erabaki, eta Lesakan antolatu genuen. Hark ere ezin izan zuen luze iraun, EAEtik kanpo egotean HABEk diru laguntzarik gabe utzi baitzuen.

Denok, hango zein hemengo, egin dugu lan bai proiektuaren alde, bai euskararen alde: batzuetan bete-betean asmatuko genuen, beste hainbatetan, aldiz, oker joko zigun kukuak. Zenbaitetan ekonomiak baldintzatu du gure lana, beste batzuetan gure ezjakintasunak, edo denera behar bezala ezin iritsi izanak. Dena dela, ekonomia puntu hori ukitu dugunez, Nafarroako Gobernuaren jokaera salatu nahi dugu, euskara ito nahian daraman politika ero eta suntsitzaileagatik; baldintza horietan lanean jarraitzeak badu meritua. Mila esker, beraz, Nafarroako lagunei, eta txalo bat eskatzen dizuet haien alde! Nafarrena hil ala bizikoa bada ere, ez pentsa Erkidegoan lanak errazak izan direnik. Hainbat urtetan, HABE nahiz Jaurlaritzarekin ezin ulertuak izan baditugu ere, azken urte honetan harremanak beste bide bat hartu duela dirudi.

Bide horrek emango ahal ditu euskarak behar dituen fruituak!

Hasierara itzuliz, ordea, nolakoa izan zen, bada, **IKA** hura? 100 irakasle inguru, lan egiteko gogoia soberan eta hamaika ilusio aurrera eramateko. Eta hasierako 100 irakasleak, pixkanaka-pixkanaka, 150 edo gehiago bihurtu izanak, gauzak ez ditugula hain gaizki egin adierazten digute. Ospakizunetan gaudenez, ospa dezagun, bada, jendea euskarara hurbiltzen asmatu dugulako. Hasierako haietatik erdiek edo... jarraituko dugu **IKAn**. Beste batzuk irakaskuntza arautura edo beste zeregin batzuetara bideratu dute euren eginkizuna.

Baina irakasle batzuk joan badira ere, izan dira bestelakoak ere. Berton ikasi dute, eta berton ari dira irakasle. Horienean bada meritua, ezta? Ezer ulertu ez, **IKA** zer zen jakin ez, eta euskararen abentura zoragarri honetan sartu, euskara ikasi, eta gure lanean dihardutenak.

Eta irakaskuntzan ari garenez, zer arraiotan ari gara ikaslerik aipatu gabe! Ikasleak izan dira eta dira gure jardunaren oinarri eta helburu. Eta ikasleek ere ongi erantzun digute, agian merezi baino hobeto. Haiek urteotan pazientziaz, gogoz, etsi gabe iraun dute. Une txarrak pasako zituzten, baina aurrera egin dute, gero eta gehiago dira goi urratsetara iristen direnak; gero eta gehiago tituluren bat edo beste ateratzen dutenak, gero eta gehiago ikasteari utzi eta, lema hartuta, irakasle sartzan direnak. Batzuei eta besteei eskerrak eman behar dizkizuegu, zuek gabe ez baikara ezer.

Besterik gabe, ondo segi, eta mila esker 20 urteotan gurekin egon zareten guztioi! Urteak joan dira bai, baina euskararen erronkak luze joko du, eta bidean lagun izango gaituzue. ■

Ttiki-Ttaka aldizkaria.

losu Murori galdetegia.

Sailaren izenburua: **NON DABIL...**

Fitxa poliziala:

Izen / Abizenak: losu Muro

Jaioteguna: 1986eko uztailak 26

Herria: Lapuebla de Labarka

Ikasketak: Kazetaritzan lizentziatua

Lanbidea: El Correon Kazetaria

Egoera zibila: Ezkongabea

Non bizi zara: Gasteizen

Hobyak: Kirola, Zinema

1- Ezagutzen al duzu Ttiki-Ttaka Elkarte eta Aldizkaria? Noiz eta nola izan duzu gure berri?

Ikastolan nengoenetik ezagutzen dut Ttiki-Ttaka elkarte. Lapueblan eta Arabar Errioxan antolatzen zituzten jardueren bidez ezagutu nituen eta beti gogoratzen ditut bertan euskara zabaltzeko saiakerak nola egiten zituzten.

2- Nola ikusten duzu euskararen egoera: azken urteetan izan duen bilakaera, kaleko presentzia, administrazioa...

Beharbada, herritik ateratzearen ondorioz, euskararen erabilpenaren beherapen bat ikusi dudala esango nuke. Hala ere, beti gertatu den bezala lekuen arabera erabilpena desberdina da. Iruñean bertan, desberdintasun nabaria dago unibertsitate publiko eta pribatuaren artean, baina askoz nabariagoa da hirian bertan eta bere ondoan dauden herrietan dagoen desberdintasuna. Adibidez, Barañainen euskara askoz errazago aurki daiteke Iruñean bertan baino. Orain Gasteizen kaleko presentzia txikia dela esango nuke, hiri erdian egon arren eta euskaldunak izateaz harro dauden pertsonak ikusi arren, zaila da euskaraz hitz egiten duten

pertsonak ikustea. Hori bai, administrazioan, diputazioan gehienbat, errazagoa da euskaraz hitz egiten duten jendea aurkitzea, batzuetan bi hizkuntzetan hitz egiten saiatzen direlarik.

3-Ikusten al duzu aurrerapenik euskararen normalizazioari dagokionean gure eskualdean? Zertan?

Saiakera desberdinak ikusi ahal diren arren, gure eskualdean zaila da ikastoletan egiten den lanaz gain beste modu batean normalizazioari laguntzeko saiakerak aurrera eramatea. Araba Euskaraz moduko jaietan bultzada ikus daiteke, baina hori beste eremu batzuetara eraman beharko litzateke. Administrazioan eta ikaskuntzan egiten den lana ez da nahikoa eta aurrerapenak kalera eraman beharko genituzke.

4- Zure lanbidean orokorrean kazetaritzan, nolako da euskararen presentzia?

Gehienetan ez dago presentzia handirik. Diputazioan eta Udaletxean bai euskara eta bai gaztelera erabiltzen dira prentsaurrekoetan, baina pilota federakuntzaz gain ez dago euskararen erabilpenik. Oro har, euskadi mailan, nire ustez Egunkaria itxi zutenetik jendeak ez du euskaraz egiten den kazetaritza hainbeste jarraitzen. Garak ez du halako jarraipenik, baina hala ere, bertan egiten den euskarazko kazetaritza ona iruditzen zait. Hala ere, Bizkaian eta Gipuzkoan nire lanbidean euskara aurkitzea errazagoa dela askotan esan didate.

5- Etorkizunari begira, zerk pentsatzen duzu eragina izan dezakeela etorkizunean euskarak gure eskualdean aurrera urrats sendoekin egiteko, hau da, zer faktorek eragin dezake zure ustez.



Etorkizunera begira, eta lehenago esan dudan bezala, administratziotik eta ikaskuntzez gain, beste eremu desberdinetara eraman beharko genuke euskara. Eskualde honetan zaila da eguneroko bizitzan euskara erabiltzeko aukera aurkitzea baina hori izan beharko litzateke helmuga. Badakit hori lortzeko bidea ez dela erreza baina bide hori aurkitzea izan behar da lehen pausoa.

a) Zerk bultzatu zintuen Kazetaritza ikastera? Zergatik kirol saila?

Betidanik maite izan dut kazetaritza. Irakurtzen eta idazten ondo moldatu naiz txikitatik eta hortik aurrera irtenbide bakarra hori izan zitekeen. Kirol saila aukeratzearen zergatia erreza da, beti egon nahiz kirolarekin harremanetan eta orain nire lan bihurtu dut.

b) Egin duzun elkarrizketarik, Errazena, zailena eta interesgarriena.

Zailena ziur aski Real Madrileko entrenatzailea den Ettore Messinari egin nion elkarrizketa izan zen. Oso gizon serioa

da eta ez zidan erraztasunik eman. Erantzun guztiak oso gogorak izan ziren eta batzuetan galderak entzun bezain laster ez zituela erantzungo esaten zidan. Errazena ere saskibaloiarekin zerikusia du. Pablo Lasok galdetzen nionari hamar minutuko erantzunak eman zizkion. Interesgarriena aldiz, Juan Vallejori egin niona. Gauza asko ikasi nituen.

c) Nori gustatuko litzazuke elkarrizketa egitea eta zergatik?

Ez dut inor buruan, baina kirolaz gain, mundua hobetzeko zerbait egin duen norbaitekin hitz egitea gustatuko litzaidake. Adibidez, Nelson Mandela gazteago zenean.

d) Gasteiz, Lapuebla, Iruñea. Bi hitz leku bakoitzari buruz.

Gasteiz: Berdea eta lasaia. Iruñea: Gaztetasuna eta nola ez San Fermin eta Lapuebla: Etxea eta ardoa.

e) Etorkizunean non ikusten duzu zure burua?

Ez dut leku zehatz batean ikusten. Batetik bestera joatea gustatuko litzaidake.

f) Amets bat?

Beti gustuko dudana egiten jarraitzea.

g) Leku interesgarri bat? Hiriburu bat?

Estatu Batuak, New York

i) Liburu bat?

Irakurri dudan azkena Cormac McCarthyren 'The Road' izan da.

j) Disko bat.

Coldplayren 'A Rush of Blood to the Head'

Kirolaren egoera gure eskualdean eta zerbait beharko balu proposamenak.

Gure eskualdean kirola egiten duten pertsona asko daude, baina Araba mailan, Arabar Errioxaren garrantzia handiago ikusi behar da. Talde gehiago ikusi behar dira Gasteizen parte hartzen.

Azkenik eta agurtzeko zure ahotik hitza ematen diguzu datorren alean zure idatziren bat Ttiki-Ttaka Aldizkarian izango dugu ezta?


Noski. Nahi duzuenari buruz.

Eskerrik asko losu Muro eta beste bat arte..■



Ttiki-ttakak logo berria nahi

Azken hilabete hauetan Ttiki-ttakak logotipo lehiaketa bat abiarazi du bere lagunen artean **ttikittaka.org** web lekuaren bitartez. Hau egiteko dauzkagun eposta zerrendak martxan jarri eta jendeari parte hartzeko gonbitea luzatu zaio internet bidez. Nahiz eta erantzuna nahi beste oihartzunik izan ez, **ttikittaka@gmail.com** helbidera iritsitako 24 proposamenekin aurrera egitea erabaki zen, hauek dira finalistak.



eta irabazlea...

Egun jasotako boto-kopuruarekin lehena eta azkena dira bozka gehien jaso dutenak. Ez zaudela ados? Bada **www.ttikittaka.org** gunean sartu eta zure logoa aukeratu!!

Animo eta parte hartu!! ■

Lamiturri elkarte

Lamiturri Kultur Elkarteak, Errioxan Euskara zabaldu nahi duen elkarteak, apirilaren 19tik 22ra "Euskara Errioxan" izenburupean zenbait hitzaldi antolatu zituen. Denboran zehar, kokatu nahi izan zuten euskara, eta berari buruz ildo horretan hitz egin nahi izan zuten; hau da, historiako garaiak erakutsi eta horietan nola zegoen gure hizkuntza aztertu. Horretarako:

Joaquin Gorrochateguik, Indoeuropar



Hizkuntzalaritzako katedradun eta Antzinaroko Zientzien Institutuko zuzendaria, filologo baten ikuspuntutik azaldu zuen guztia. Batez ere,

Yanguasen eta Cidacos goi aldean aurkitutako estelei buruz aritu zen.

Jose Luis Ramirez



Sadaba, Kantabriako Unibertsitateko errektoreordea izateaz gain, unibertsitate horretako Historia Zientzietako Saileko Antzinaroaren Historiako irakasle titularra da. Hitzaldia erromatar

garia kokatu zuen, Errioxa beheera eta ondoko herri nafarretan egiten zen hizkuntzan, batik bat. Ebro ibaiari zeharkako ardatz bat marraztuz, euskararen jarraikortasuna, hutsune eza, erakutsi zuen, hasi Nafarroako Pirinioetan eta Cidacoseko goi-ibarretaraino, "La Hez".



Eduardo Aznar Martinez Kultura eta Gizarte Antropologian eta Geografia eta Historia lizentziatua da. Gaur egungo toponimo zerrenda luzea egin zuen eta antzinatik gaurdaino hizkuntzak izan duen

garapenaren interpretazio bat.



David Peterson, Geografia eta Historia lizentziaduna, Erdi Aroan aritua da. Erdi Aroan hizkuntzaren egoeraren inguruko iritzia eman zuen.

Halaber, hizkuntzaren atzera egiteen azalpenak eman zituen. Ideia interesgarriak, benetan.

Oro har, hitzaldien balorazio oso ona egin dugu, eta urtero ez bada, bi urtean behin antolatu nahi ditugu. Garbi geratu da jendeak baduela interesa gai honetan, hain gutxi eta azaletik aztertu den gaian sakondu nahi du jendeak. Orain arte, gehienetan, Erdi Aroko birpopulatzeak eman izan dira arrazoitzat; hitzaldi hauetan, ordea, oso kolokan jarri da teoria hori. Askoz modu orokorragoan planteatu beharra dago gaia, hitzaldietan saiatu garen bezala.

Hurrengo urteetan ere gai eder honen inguruan hitz egiten jarraituko ahal dugu! ■





Arabar Errioxan badugu bertso talde berria.

Egan noa ta egan nator....

Orlando Arreitunandia, Endika Sarabia eta Edurne Azkarate ditugu bertsolariak; Arantxa Sobrino eta Alazne Garcia gai jartzaileak eta Mikel Fernandez de Arroiabe epailea.

Hala ere, talde hau pertsona gehiagoz osatuta dagoela ezin da ahaztu. Arantza Sobrinatori egitasmo hau nondik datorren galdetzerakoan iturri askotatik edan duen proiektu bat dela azaldu digu. Batetik, duela zortzi urte, San Bizente ikastolan bertsolaritza tailerrak ditugu. Bestetik, Endika eta Edurne bertso udaleku batzuetan egon ziren eta han ezagutu eta maitemindu ziren ohitura zahar honetaz.

Bertso eskola iazko ekainean sortu zen eta bertan lehen aipatutako bertsolariez gain Iker Olabarrieta ere ibili da. Taldea osatuta izanik Arabako kuadrilla arteko bertsolari txapelketako erronkari ekin diote. Txapelketa honetan Zalduondo eta Airaldeko Altubepekoen kontra lehiatzea tokatu zaie. Lehenengo froga Zalduondon izan zen eta talde aurkariaren kontra ez ezik "ciclogenesi explosiboaren" kontra ere borrokatu ziren, bidean enbor bat topatu baitzuten. Bigarren saioa, Oionen ospatu zen giro bikain batean. 80 lagun inguru gerturatu ziren Azkena txokoan prestaturiko bazkarira. Gure bertsolarien maila gora nabarmen egin zuela adierazi zuten epai-mahaiakoek. Bertsolariei galdetuta zein izan zen momenturik onena

eta txarrena hirurek erantzun berdina eman zuten. Txarrena saio hasierako urduritasunak, baina bukatutakoan jasotako berotasunak dena konpontzen duela adierazi ziguten.

Gure taldea ez zen garaile suertatu baina hori gutxienekoa da. Garrantzitsuen Arabar Errioxan bertso talde bat dugula da. Euskaldun eta euskaltzale guztiok animatzen zaituztegu talde honen partaide izatera. Esperientzia berririk progatu nahi baduzue, saioak asteazkenetan 7etatik 8:30era izaten dira Oiongo IKAn. Bi urte barru izango da berriro kuadrillen arteko txapelketa eta 3 bertsolari izan beharrean 6 izatea aurrerapauso ederra izango litzateke.

Bukatzeko Orlandok bertso batean botatuko hitzak gogoratu nahiko nituzke:

.... **inork ezin gaitu geldi**

ai martxa hartuta.... ■



A n e g o g o a n

Anerentzat
(habanera doinuaz)

Idarreta Galarraga
 Ane zuen bere izena
 San Bizente ikastolan
 gure lankidea zena.
 Hogeita zazpi urtetan
 irakatsi egin diena
 hainbat ta hainbat umeri
 bizitza(ra)ko beharrezkoena.
 Euskaldun peto-pettoa
 donostiarra galanta,
 Oiongo ikasleentzako
 bai andereño xarmanta.
 Herrian geratu gara
 zure irribarrearen falta.
 Dudarik gabe zu zinen
 oso emakume aparta.

Arantxa**Andereño Aneri bertsoa**
airea: habanera

Orain dela gutxi jun da
 gure irakasle kuttuna,
 urte asko ta askotan
 albon izan duguna.
 Jun danetik sartu zaigu
 gorputz osoan asuna,
 andereño Ane izan da
 laguntzaile ta laguna.
 San Bizente ikastolan
 irakasle euskalduna,
 ta ez bakarrik lagundu
 garatzen gure garuna,
 maitasunaren beharra
 ondo erakutsi diguna
 eta berak gu maitatu
 jakinarazi ziguna.

Edurne Azkarate

Argazki txisteak I

Kike Amonarrizen txisteetan oinarritutako argazki txisteen egileak, goitik eta ezkerretik hasita: Ekaitz, Gaizka, Julen eta Adrian. Behean eta ezkerretik eskuinera: Oihane, Arantza, Andoni eta Andoni.



Praixku Oiondik inoiz ez zen atera.

Ordua iritsi zitzaiola eta, lagunei Madrilerara zihoala adierazi zien.

- *Burutik jota zaude. Joaten bazara, lapurretan egingo dizute. Ezer gabe etorriko zara. esaten zioten lagunek.*



- *Madrilerako autobus txartel bat, mesedez!*

- *Tori!, bidaia ona izan!*



Praixku iritsi zen Madrilerara eta zer egin zuen...eskua patrikan sartu eta...

- *Je, je...Madrildar hauek niri lapurtzeko beste bi aldiz jaio behar dute, gutxienez!"*



Hor zebilen Praixku eskua poltsikoan Madrilen gora; Madrilen behera. Halako batean, pixagura sartu zitzaion, aurkitu zuen non egin eta bai egin ere; baina, zerbait ahaztu zitzaion: txarretera igotzea.



Gizonezko heldu batek kalean pasatzean:

- *Aizu!, txarretera irekia duzu!"*

Eta Praixkuk bere buruari: "Bai, bai ederki ari haiz, niri ez didak ziririk sartuko, lapur txerri horrek!"

Emakume baten ondoan pasatzean:



- *Aizu! txarretera irekia duzu!*

Praixkuk bere artean: "Oi! Hemen denek ikasten dute

lapurretan! Emakume honek ere ziria sartu nahi zidak"



Ume bat inguratu zitzaion eta:

- *Aizu, txarretera irekia duzu!*

Praixkuk: "Ene, bada! Umetatik irakasten diete hemen lapurretan" Utikan! Ume moko zikina!"



Kale saltzaile batzuk zeuden plaza batera iritsi zen eta lurreko alfonbra gainari begira ari zela

saltzaileak esan zion:

- *Gizona, arrautza bat bistan duzu!*

- *Mekabenzotz! Bestea lapurtu didate! ■*



Argazki txistek II

Joxepo, herriko igeltseroa, hamalagarren pisuan ari zen lanean; balkoiari konponketa batzuk egiten, hain zuzen ere.



Halako batean, irrist egin eta behera erori zen

- aaaaaahhhhhh!

Danba! A zer kolpea! Nolako zarata entzun zen inguruetan!



Jende pila bat inguratu zen eta denak galdezka:

- Zer gertatu da? Zer gertatu da?



"Zer gertatu da? Zer demontre gertatu da?" galdezka hurbildu zenean jendea, igeltseroa lurretik altxatu eta:

- Nik ez dakit, oraintxe iritsi naiz eta!" ■



Txistea kontari

Erentzun Ikastola (Lehen Hezkuntza 3. eta 4. maila)

Zergatik kostatzen zaie modeloei zebra bideak gurutzatzea?

Joan eta gero etorri egiten direlako.

Mutil batek hain zuen aho txikia, hiru esan beharrean bat, bat, bat esaten zuela.

Lagun batek besteari:

- *Nola ausartzen zara itsasora lanera joaten, zure aitona eta aita itsasoan lanean hil baziren?*

- *Eta non hil ziren zure aitona eta osabak?*

- *Ba non hilko ziren ba! Etxean, ohean!*

- *Eta nola ausartzen zara egunero ohean sartzen?*

Emakume bat okindegira joaten da eta esaten dio okinari:

- *Egunon. Eman bi ogi, funtzionario.*

Eta okinak esaten dio:

- *Ez dira funtzionario, baguette baizik, baguette!*

- Ama! Ama! Eskolan Rambo esaten didate.

- *Lasai seme zuzendariarekin hitz egingo dut.*

- *Ez, ez, hau nire misioa da.*

Ba omen zen behin Donostiara sekula jaitsi gabeko baserritar bat. Eta trenean ibili behar zuela, eta zuzen-zuzenean geltokira jaisten da. Eta hantxe maletak hartu, eta geltokian alde batetik bestera oinez, tipi-tapa, tipi-tapa, alde batetik bestera. Hamar minutu, hogeit hamar minutu, ordu erdi bat, eta tipi-tapa, tipi-tapa, batetik bestera oinez. Geltokiko gizona etorri zaio eta:

- *Baina, gizona, zure trenea oraindik ez da etorriko, eseri zaitez.*

- *Aizu, ni baserritarra naiz, baina ez analfabetoa, eh? Hor anden jartzen du, eh?*

Ume batek esaten dio bere amari:

- *Ama, ama! Zenbat hezur ditugu?*

Eta amak esaten dio:

- *207 uste dut.*

Eta semeak:

- *Ba, nik 208.*

- *Burugogorra! Ez al dizut esan 207 ditugula?*

- *Bai, baina oraintxe oliba hezur bat irentsi dut!*


-Aita, aita! Ni nagusi egiten naizenean amonarekin ezkonduko naiz!

- *Baina seme! Nola ezkonduko zara nire amarekin?*

- *Eta zu ezkondu zinen, ba, nirearekin...■*

Gurutzegrama

Erentzun Ikastola (Lehen Hezkuntza
3. eta 4. maila)



1.- Buruan mugitzen den hezur bakarra, edozein gauza, normalean elikagaiak, murtxikatzeko erabiltzen duguna.

2.- Gorputzaren motorea. Hau geldituz gero, hil egingo gara!

3.- Gure gorputza osatzen duten zati gogorra, singularrean. Ba al dakizu 206 ezberdin ditugula?

4.- Gure gorputzean goialdean dago kokatua, eta bere barruan pentsatzeko erabiltzen dugun gauza likatsu bat

dago. Erabil ezazu eta hau zer den aterako duzu.

5.- Pertsona edo animalia baten estruktura materiala.

6.- Hauei esker gure hezurak mugitzen ditugu. Singularrean.

7.- Pertsona bat fisikoki, mentalki eta sozialki ongi dagoenean, hau ona duela esaten dugu. Zuk ona al duzu?

8.- Gorputza leku batetik bestera eramateko erabiltzen duguna, singularrean. ■

Horoskopoa ala horroskopoa?

Erentzun Ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako sorginek idatzitako iragarpenak.

Aries

(Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra)

Aurten, loteria tokatzen bazaizu, adi, dirua bai baina zoritxarra dakarren pertsona bilakatuko zara eta zure amak etxetik kanpora botako zaitu. Zorte txarra!!

Taurus

(Apirilaren 21etik
Maiatzaren 21era)

Kaletik joaten zarenean eta neska batekin topo egiten duzunean, ez hitz egin nesken zaletasunei buruz bestela zure neska-laguna izango da, bizitza osorako!!! Mutilentzat berdin balio du iragarpen honek.

Geminis

(Maiatzaren 22tik
Ekainaren 22ra)

Norbaiti ezpainetan muxu bat ematen badiozu zorte txarra edukiko duzu. Beraz, beste leku bat bilatu beharko duzu muxua emateko. Ez dizugu ideiarik emango hori egiteko hamaika leku interesgarri dago!

Cancer

(Ekainaren 23tik
Uztailaren 22ra)

Hondartzan bazaude eta karramarro bat

bainujantzian sartzen bazaizu, zorte handia izango duzu urte osoan, neska edo mutilekin. Gainera, Vianara etortzen bazara, 100 euro aurkituko dituzu plazan. Hori bai karramarroak edozein momentutan hozka egin diezazuke.

Leo

(Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra)

Katu beltz bat ikusten baduzu bizkor-bizkor hartu isatsetik eta ahoa irekitzen duenean galtzerdi usaintsu eta zahar bat sartu. Aste horretan ez duzu inorekin liskarrik edukiko. Hori egiten ez baduzu beste edozein katu beltz ikusten duzunean galtzetan kaka egingo duzu.

Virgo

(Abuztuaren 24tik
Irailaren 23ra)

Egun hauetan kontuz mutilekin, agian baten bat hurbilduko zaizu eta zure bizitzako amodioa aurkituko duzu. Neskak, aldatzeko momentua ailegatu da, zuek erabaki zer: arropa, lagunak, txakurra edo arrainaren ura... baina aldatu!

Libra

(Irailaren 24tik Urriaren 23ra)

Egun hauetan, beti bezala, gaizki

portatuko zara. Istripu batengatik erortzen bazara zure bizitza hobetuko da: amodioa etorriko zaizu, kiroletan onena izango zara eta ez hori bakarrik, azterketetatik libratuko zara. Kar, kar, kar! Libra... libratu!

Escorpius

(Urriaren 24tik Urriaren 31ra)

Txanelako edo Inguruneke azterketa etxean komentatuko duzu, notaren arabera zigortu edo saria emango dizute. Emaizta ona bada ordenagailura jolasten utziko dizute eta txarra bada postreerik gabe zigortuko zaituzte.

Sagitaris

(Azaroaren 23tik
Abenduaren 22ra)

Sagitaris baldin bazara arlo guztietan porrot egingo duzu eta irakasleak pasabidera bidaliko zaitu. Baina etxera ailegatzean, izozki ederra izango duzu askaltzeko eta neska edo mutil jator bat ezagutuko duzu Messengerren.

Capricornius

(Ekainak 23tik Uztailak 22ra)

Oso zorte txarra edukiko duzu. Matematikako azterketa ez duzu gaindituko, problemetan, datuak idaztea ahaztuko

zaizulako. Horren ondorioz zure amak errieta egingo duzu. Irakasleak, ordenagailuan etxerako lan bat bidaliko duzu, eta ezingo duzu egin ordenagailua apurtu zaizulako. Zorte txarra lagun!!!

Acuarius

(Urtarrilaren 21tik
Otsailaren 19ra)

Futbolari ona bazara, kontuz ibili putzuekin, irristatu gabe baloiari ematen badiozu irakasle bati aurpegiaren erdian emateko arriskua egongo da. Jaso dezakezun zigorra gogorra izan daiteke bene-benetan. Beraz, acuarius izan arren egun euritsuetan etxean gera zaitez.

Piscis

(Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra)

Ez apurtu inoren etxola, lagunak gal ditzakezu eta. Bizitza osorako bakarrik geldituko zara, eta hori oso triste da. Gogoratu, ez apurtu inoren etxola!!!! Ez dakit ulertu duzun. Besteek egiten dituzten etxolatxoak ez direla apurtu behar. Hauek egiten denbora luze pasatzen baitugu. Ez apurtu!! ■

Zazpi desberdintasunak



Ikasle ona ala txarra?

1- Etxeko lanak egiten al dituzu?

- a) Bai, beti egiten ditut.
- b) Gehienetan ez ditut egiten.
- c) Ez ditut egiten.

2- Ikasten al duzu?

- a) Beti ikasten dut.
- b) Batzuetan bai eta beste batzuetan ez.
- c) Ez dut kolperik ematen.

3- Ikastea gustatzen al zaizu?

- a) Bai.
- b) Batzuetan bai eta beste batzuetan ez.
- c) Ez.

4- Klasean irakaslearekin adi zaude?

- a) Bai.
- b) Batzuetan bai.
- c) Ez.

5- Irakurtzea gustatzen al zaizu?

- a) Bai irakurle ona naizelako.
- b) Berdin zait irakurtzea.
- c) Ez, rollo bat delako.

6- Informatika gustatzen al zaizu?

- a) Bai, ordenagailuak gustatzen zaizkidalako.
- b) Batzuetan bai eta beste batzuetan ez.
- c) Ez, ez dakidalako ordenagailuak erabiltzen.

ERANTZUNAK

A gehienetan aukeratu baduzu, ikasle on-ona zara, etxerako lanak egiten dituen eta abar.

B gehienetan aukera baduzu, ikasle normala zara, etxerako lanak egun batzuetan egiten dituen, eta irakaslearekin batzuetan adi egoten dena.

C gehienetan aukeratu baduzu, ikasle txarra zara: ez dituzu inoiz etxerako lanak egiten eta irakasleari ez diozu kasurik egiten. ■

Gurutzegrama erantzunak

1- Baraila	5- Gorputza
2- Bihotza	6- Muskulua
3- Hezurra	7- Osasuna
4- Burua	8- Hanka

DEPOSITO HONETAKO URA ERABILTZEKO ARAUAK
(125/2009 zk.ko Alkatearen Dekretua)
REGLAS PARA EL USO DEL AGUA DE ESTE DEPÓSITO
(Decreto de Alcaldía n. 125/2009)

Onzi honetako ura Bastidako udelerrian kokaturiko soroeterako eta nekazal urontziak betetzeko baino ezin duzu erabili.

Este agua sólo se puede utilizar para llenar los depósitos de agua para fines agrícolas y para las fincas sitas en la jurisdicción de Labastida.

Hemen ezin dituzu fitosanitariozko osagaiak egin.

En este lugar está prohibido elaborar los prerapados fitosanitarios.

Hemen ezin dituzu garbitu mota guztiako ibilgairuk ez tresnarik eta nekazal tresnarik ere.

En este lugar está prohibido lavar todo tipo de vehículo y maquinaria, así como los útiles agrícolas.


Arau hauek urratzen dituenari 750.-€ eurotako isuna ezarriko zaio

El incumplimiento de estas instrucciones puede ser sancionada con multa por importe de 750.-€

DROGEN PLAN NAZIONALA

Bastida, 2009ko irailak 21

Labastida, 21 de septiembre de 2009



Non gogoa, han zangoa



LABURBIRA
FILM LABURREN VII.ZIRKUTUA

AHATE PASA 1987 (1990)	ODISEA ETKELOERAN 1989 (1991)
ZORION HUTSA 1988 (1990)	KAMERATORA 1989 (1991)
NORA ZORZ 1989 (1991)	ESAIKIK 1990 (1992)
CLARK & BORDS 1991 (1993)	AMONRA PUTZ 1992 (1994)

logotipo: orfina:

lugarra: lokala:

2010/04/08

www.horagorria.org



Non gogoa, han zangoa



Ttiki-ttakako bazkidea izateko

Bazkide izan nahi baduzu, behealdeko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera; edota nahiago baduzu idatzi gure helbide honetara: ttikittaka@gmail.com

Kuotari dagokionez, 20 euro dira urtean eta gazteentzat borondatea.

Honen truke bidaliko dizugu aldizkaria, informazioa eta ekintza eta bileren berri.

Deiturak _____ Izena _____

Jaioteguna _____ Helbidea _____

Herria _____ Pta.Kodea _____ Tfnoa _____

Helbide elektronikoa _____

Banku-Aurrezki kutxa _____ Sukurtsala _____

KK edo libreta zkia _____

Data _____ Sinadura _____



Assa Ikastola



san bizente ikastola



ikaerrioxa

